

Iban Zalduek «Gauza» deitzen dio euskal arazoak bere baitan biltzen duen guztiari. Hortik «Nola izan garen gauza, euskal gatazkaren inguruko ipuin (ia) guztiak» ipuin bildumaren izenburua. Eufemismotik gutxi dute narrazioek, ezin jakin nondik asaldatuko zaituzten.

«Nola izan garen gauza», fikzio batzuek begirada alda dezakete

Maiden IANTZI GOIENETXE | DONOSTIA

Iban Zalduek «Nola izan garen gauza, euskal gatazkaren inguruko ipuin (ia) guztiak» (Erein) obrak 2018an gaztelaniaz argitaratutako «Como si todo hubiera pasado» du aurrekari. Bertan, idazle donostiarrak euskal gatazkaz idatzitako 42 ipuin jasotzen ziren. Orain, lana osatu eta 60 ipuin bildu ditu, tartean lau berri. Ibon Egañaren hitzaurrea eta Uxue Apaolazaren atzealdeko gonbidapen testua ere baditu liburuak.

1989an argitaratu zuen lehenengo liburua gaztelaniaz; hamar urte geroago, euskaraz. Bilduma honetako lanik zaharrena 1999koa da, eta orain arte argitaragabea, berriena. Garai bakoi-tzaren aldarteren isla dira. Ahalik eta ipuin gehien jasotzen saiatu da egilea, baina ez daude denak, batez ere «gauza»-ri buruz idazten ari delako orain ere.

Ipuingilea da Zalduek, baina ipuin hauek guztiak bilduta ikus-tean eleberrigile sentitu da lehenengo, «nobela faltsu bat izan arren, txatalez josia». Bertzetik, idazle gisa eman zituen lehenengo pausoak oroitu dituela kontatu zion GARARI. «Premia sentitzen nuen gaiak idazteko, baina nola heldu erabakitze orduan zalantzak nituen». Geroztik, talia, trama eta helduleku ezberdinak probatu ditu begirada ahalik eta gehien zabalduz.

«Izaera poliedrikoa»

Obraren honen «izaera poliedrikoa» aipatzen du Egañak aitzinsolasean. «Alderdi asko dauzka euskal gatazkak, eta gizarte osoa permeatu du gehiago edo gutxiago. Ez dut honetaz bakarrik idatzi, baina niretzat gai inportantea da, hau delako gurean gertatu zai-gun gauza potoloena azken 50-60 urteotan; hau da, ni munduan egon naizen denbora guztian», adierazi zuen idazleak.

Itxaro Borda gonbidatu zuen aurkezpenera, «gai honen inguruko idazle esanguratsua delako. Baita idazleei norbere lanaz mintzatzeko perspektiba falta zaiela uste delako ere. «Joera dugu munduko onenak garelako pentsatzeko, edo beste muturrera goaz,

segurtasun falta ikaragarria». Baionarrak argi hitz egin izan du euskal gaiak, ausardiak. Eta gardena izan zen ekitaldian ere. «Urruntzen ari zaigu 'gure gauza', baina beti zaila da argi hitz egitea. Halako liburuek hitza libratzen ahal dute, euskaraz. Orain arte gai honi buruzko testuak erdaraz ditugu gehienbat», erran zuen. «Cosa nostra» etortzen zaio burura «gure gauza» aipatzean, «mafiatik» ere baduelako. Izan ere, bere irudiz, «behartua sentitu izan da euskalduna (...) denek batera nahi ala ez utzi dugu piztia haztera».

Distantzia lantzeko gaitasuna

«ETA amaitu denetik, ezker abertzalea gauzak argitzen ari denan biktimei buruz, azken gauza bat bada argitzeko: errelatoaren gerla», agertu zuen Bordak. Konfrontazioa bilatzen da kontakizun baten eta bertzearen artean, eta «hor kokatzen da literatura-ren funtsa. (...) Zerbait gogor gertatzen zaigularik distantzia bat behar da sortu, gauzak erran, eta literatura badu distantzia hori lantzeko ahalmena».

IZENDATU...

Egañak dioenez, Zalduek euskal irakurle komunitatearentzat soziologikoki gertukoagoak diren egoera eta indarkeriak izendatu ditu (kartzela, ilegalizazioak, torturak), baina ETAREN indarkeria jasandakoan inguruneak ere sinesgarritasunez eraiki ditu.

... ETA ESPLORATU

Hitzaurrean azaltzen denez, «subjektuak bere burua kanpotik ikustea, bere baitako bikoiztasuna esploratzea baldintza da bestearengana, ezezagunarengana enpatiatik iristeko». Horri eutsi dio idazleak ipuingintzan.

«Irakurle gisa zein sentsazioekin gelditzen gara, gehienbat historia latz hori bizi dugunok?», galdetu zuen. «Irrealitatearen sentsazioa dut alde batetik, irudi du pertsonaiek ez dutela loturarik errealitatearekin. Beste irudipen bat honakoa da: hainbeste hil eta zauri eragin dituen historia horretako pertsonaiek espektroak al dira? Diskurtso politikoetan ere bada fikzio bat: gure gauza sustengatzera edo kritikatzera eraman gaituzten erran guztiak gure buruari kontatzen genizkion istorioak ote ziren? Jende asko, politikan engainatuak direlarik, batzuetan ez dira erraten ausartzen pentsatzen dituzten gauzak».

Apaolazak abisatzen duenez, liburuan barneratzen bazara kontuan izan itzulerarik gabeko bidaia bat hasteko zorian zaudela. «Ipuinak liburua itxi orduko isilduko diren itxaropena baduzu, gaixoa; fikzio batzuek begirada aldatzeko boterea baitute, eta badakigu, historiaren joanean elementu bat bakarra aldatuz gero, zer gerta daitekeen, bai orainaldian bai etorkizunean».

Un formato para la flor



Carlos Gil
Analista cultural

A veces los tópicos encierran el misterio. O lo descubren. El menos es más no alcanza para explicar lo que condicionan los géneros o los formatos. Una tragedia contada en un unipersonal siempre se puede romper por las costuras. Una comedia convertida en una obra de cuatro horas y siete escenarios con cincuenta y tres figurantes suena a derroche. Por eso las nóminas se vuelven escuetas en casi todas las maneras de afrontar la producción. A no ser que se dispare con la pólvora del rey, porque entonces el delirio está permitido. Llamamos unipersonales a loa monólogos por un desgaste del término. Es una prevención unilateral impuesta por los programadores para inculcar una noción de desajuste temporal. Si no eres Dario Fo o «El Brujo» no puedes abarcar con un simple juego de voces personales y una imaginación vicaria la explicación del mundo, ni siquiera ampliando la mirada desde un calidoscopio. Suspender la narración con elipsis subterráneas es un don que no está al alcance de los trabajadores de la cultura, hay que tener un defecto de fábrica para que entre los genes se esparza una posibilidad de trascender más allá del relato y convertir el tiempo en primaveras constantes. A veces se trata de un esfuerzo continuado que acaba en un espasmo. En el pequeño formato cabe el universo entero y en el gran formato es difícil encontrar la sutileza de la flor. Y viceversa.



Iban Zalduek Itxaro Borda gonbidatu zuen aurkezpenera, berak ere aunitz idatzi baitu «gauzak».

Maiden ANDRES | FOKU